

Eskolako Agenda 2030 Debabarrenean

Udaletxeekin elkarlanean, 20 urte inguru daramatza Debegeesak, Debabarreneko Garapen Agentziak, eskualdean Eskolako Agenda 2030 egitasmoa sustatzen eta koordinatzen. Eskola-komunitateari zuzendutako garapen jasangarrirako heziketa programa bat da Eskolako Agenda 30. Egitasmoak hiru helburu ditu:

- Ikastetxeak ingurumen eta gizarte jardunbide egokien eredu bihurtzea.
- Ingurumen eta gizarte-arazoak identifikatzeko eta horiei konponbidea emateko gai diren ikasleak hezteak.
- Partaidetza eta ingurumenarekiko errespetua sustatzen duen hezkuntza bermatzea.

Guztira, 20 ikastetxek parte hartzen dugu Debabarrenean Eskolako Agenda 2030 programan. Programaren baitan, hezkuntza komunitate osoari zuzendutako ekintzak antolatzen dira, ikasle, irakasle eta familiei. Aurten ere Energia eskuragarria eta ez-kutsagarria gaia landu dugu.

Aurreko ikasturtean udalerriko energia diagnostia egin genuen, eta hainbat proposamen egin genizkien udal ordezkariari, energia kontsumoa murrizteko helburua zutela ardatz. Aurten, aldiz, proposamen baten inguruan jardun dira buru belarri ikasleak, zehazki, energia kontsumoaz hausnartzeko bideoa egin dute.

Mutrikuko ekimena

Ikasturte honetan, ikasleek energiaren kontsumoa eta erabilera izan dituzte ardatz, eta zehazki, argiteriaren eta berogailuen erabilera zuzena eta mugikortasun jasangarria izan dituzte hizpide. Lanaren emaitza hiru zentroetako ikasleek osatutako bideoa izan da.

Goizeko Izarra Ikastolako ikasleok bero egiten duenean berogailuak itzaltzea sustatzeko bideo bat grabatu dugu.

Bideo honekin zera lortu nahi dugu: ahalik eta jende gehiena ohartu dadila energia aurrezteko moduetako bat berogailuaren erabilera egokia egitea dela baina horretarako tresna egokiak ere behar ditugula.

Gure bideoaren izenburua:

LEIHOAK ON, BEROGAILUAK OFF!

Hemen irudi batzuk ikusgai:

